

ARABIA IRUDIKAPEN GARAIKIDEAK. DISKURTSO KRITIKOAK ETA PENTSAMENDU POLITIKOA

Route 181: oroimen historikoa berreskuratzea gatazka palestinar-israeldarrean, Eyal Sivan

Gatazka palestinar-israeldarraren konponbide benetako eta iraunkor orok diskurtso sionistak ezarri duen oroimen historikoa berrikusteko prozesu bat abian jartzea eskatzen duen iritzira erabat bildurik, Eyal Sivan (Haifa, Israel, 1964) eta Michel Khleifik (Nazaret-Galilea, Palestina, 1950) *Route 181, fragments d'un voyage en Palestine-Israël* filma egin zuten. "Route 181 –azaldu zuen Eyal Sivanekek Arabiar irudikapen garaikideak. Diskurtso kritikoak eta pentsamendu politikoa mintegiaren lehen jardunaldian eginiko ekarpenean zehar- arkeologia politikoko lan bat da, botere sionistak burutu duen (eta israeldarren irudi munduan sartzea lortu duen) oroimen historikoaren erabiltze eta nahasteari mozorroa kendu nahi dion kontakizun bihotzeko bat planteatu nahi duena". Aldi berean, filmaren helburua gatazkaren historia berreskuratzen eta berridazten laguntzea da, ikuspegi askotariko eta konplexu batetik abiatuta, aintzat harturik horrenbestez hala juduen –arabiar eta mendebaldarren- ikuspegia nola palestinarrena.

Eyal Sivanen iritziz, bakar-bakarrik oroimen ofiziala desmuntatuz eta gatazka honen sorburua zehatz-mehatz aztertuz (1948an, NBERen babesean, Israelgo estatua aldarrikatzea lurralde palestinarrean, judutarrei holokaustoak eragindako ikaragarrikerien ordaina-edo emateko) aldatu ahal izango dira mentalitateak, palestinarren eta israeldarren arteko adiskidetzeta sustatzeko bidean barrena abiatzeko. "Ezin da elkarbizitza baketsua posible izango den etorkizunik eraiki – zehaztu zuen Eyal Sivanekek- Israelgo Estatuaren fundazio ekintza bera Palestinako lurraldearen zatiketa artifizial batean oinarritzen dela eta honek bertako biztanleetako asko lurrik zein etorkizunik gabe laga zituela ahantzirik".

Hasteko, oroimena ahanzturaren aurkakoa da. Baina, egiaz, beti-beti oroitzapen batzuen aukeratzea dakar berekin eta, ondorioz, beste batzuen baztertzea (edo ezabatzea, ahaztea). Oroimen israeldar ofizialaren eraikuntzan, "ahantzi" egin dira datu eta gertakizun historiko asko, eta honek Nazioarteko Zuzenbidearen ikuspegitik legez kanpokoak diren hainbat ekintza zilegi bihurtzeko balio izan du (esate baterako, Palestinako lurraldearen pixkanakako okupazioa bertako biztanleen oniritzirik gabe), egintzen estrategia politikotik abiatuta.

Duela gutxi, Israelgo Justizia ministro Tomy Lapid-ek, naziek Auschwitz hildako emakume baten biloba bera, izugarriko eskandalua eragin zuen, esan zuelarik emakume palestinarrek Israelgo tankeek eraitsitako etxeen hondarretan azterka ikusten zituenean "amama zetorkiola gogora". Beste zenbaitetan ere, Israelgo politika eta kulturaren arloko beste zenbaitetik antzeko jarrerak adierazi ditu jendaurrean, bere gobernuak palestinarren aurka burututako ekintza batzuk nazismoaren ikaragarrikeriekin alderatuz. "Adierazpen horietan guztietan –esan zuen Eyal Sivanekek- hiritar israeldar eta ez israeldar askori barnean sortzen zaigun harridura bat islatzen da: nola liteke jazarpena eta bere lurraldetik kanporatua izatea bete-betean jasan duen herri batek gauza bera egitea beste pertsona batzuei? Eyal Sivanen iritziz, hau posible egiten duena genozidioaren oroitzapena bera da, zeren eta historiarako txerto gisa baitihardu, hau da, norberaren ikara oroitzeak bestearen ikara ahaztarazten (edo, asko jota ere, maila baxuan jarrarazten) du. Eta ahanztura horri lagundu egiten dio, inolaz ere, juduen holokaustoan izandako erantzukizunagatik europar gizarteak duen kontzientzia txarrak, ezen halako permisibitate jarrera bat eragiten du Israelgo Estatuaren ekintzen aurrean.

Oroimen israeldar ofiziala hiru ukapenetan oinarritzen da. Lehenbizi, judu herriaren "diaspora" izaera (izan ere, XX. mendearen bigarren erdialdera arte sekula ez da geografi esparru zehatz batean finkatutako nazioa izan) herri horren nortasunaren adierazgarri behinena dela ukatzea. Ildo honetatik, kontakizun sionistak umilazio eta sufrikario segida baten antzera deskribatzen du diaspora, judu herriak sekula nahi izan ez zuen patu historikotzat edo jainkoak ezarri probatzat (Eyal Sivanen iritziz, hau guztia neurri batean soilik da egia).



Bigarrenik, alde judu-europarra (askenaztarrak) adina edo hedatuagoko kultura judu-arabiar baten (sefardiak) existentzia historikoa ukatzea. "Identitate israeldar ofiziala itxuratu duen irudi mundu sionista –esan zuen Eyal Sivanek- judu mendebaldarren historiaren inguruan egituratzen da, ekialdeko juduen legatu zabalari buruzko aipamenak beti-beti ikuspegi kulturalista eta ez historiko batetik egiten diren bitartean". Arabiar munduaren oroimen historikoaren eraikuntzan ere baztertu egiten da lurraldean izandako juduen presentzia, nahiz hainbat mendetan zehar elkarrekin bizi izan ziren inolako arazorik gabe. Aldi berean, ez dago gizarte israeldarraren konplexutasunari buruzko inolako hausnarketarik, eta Hamas bezalako mugimenduen asmoa Palestina, etorkizunean, zeharo eta erabat arabiarra izatea da.

Hirugarrenik, 1947 baino lehenagoko Palestinaren errealitate geopolitiko eta kulturala ukatzea, halako mailan ezen narrazio sionistak jotzen baitu indigena arabiar-palestinarra sekula ez dela existitu. Hau da, Jordan ibaiaren eta Mediterraneoaren arteko lurraldeko indigena bakar eta benetakoak juduak dira; beraz, haien iritziz, ez dago inolako arrazoirik palestinarrekiko arazoa arazo kolonialtzat hartzeko.

Ez dugu ahortzi behar gatazka honetan aurrez aurre ditugula kultura mendebaldarraren biktimarik biktimenak –juduak- eta maila baxuagoko biktima batzuk –palestinarrak-, zeinak, sionismoak sustatutako ikuspegiaren arabera, biktima baitira erasotzaileek horrelakorik nahi ez badute ere. Alabaina, mendebaldeko iritzi publikoaren sektore zabaletan gero eta hedatuago dago Ariel Sharonen gobernuaren ekintzetako batzuk naziek burutu zituztenen pare-parean jar daitezkeelako ideia. "Diskurtso planteamendu honek –azaldu zuen Eyal Sivanek- biktima nagusi berri bihurtzen ditu palestinarrek, sekula izan den borrarorik latzena baitute, naziak alegia". Horrelako interpretazio eskematiko eta murriztaileak (diskurtsoa agortu egiten baitute) baztertu behar direla argi eta garbi jakinik, Eyal Sivanen iritziz azpimarratu egin behar da israeldarren eta palestinarren arteko gatazkan izugarritzko desoreka dagoela inplikaturako bi eragileen artean. Hau da, biak ala biak biktima eta borrarero dira, baina batzuk biktimago eta besteak borrareroago dira.

Orain artean, diskurtso sionistak gatazkaren oroimen historikoa administratu du, presio palestinarren aurrean amore emateak Israelgo Estatuaren jarraipena arriskuan jartzea dakarrelako ideia zabalduz bazterretan. Abiapuntu hau duela, Israelgo gobernuak dio ezin dela 1967 baino lehenagoko mugetara itzuli (are gutxiago 1948 baino lehenago zeudenetara), zeren eta, haren hitzak dira, "Auschwitz mugak" baitira. Kontuan izan behar da David Ben-Gurionek -israeldar nazioaren aitatzat hartua da- Israelgo Estatuari atxikitzen ziola juduek pairatu genozidioaren biktimen oroitzapenaren ordezkari bakarra. Are gehiago, 50eko hamarkadaren erdialdean bere gobernuaren aurkako lehenbiziko protesta publikoen protagonista izan ziren etorkin judu arabiarrei leporatu izan ziren arrangurarako inolako motiborik ez zutela, beren egoera nazien jazarpena jasan zuten judu mendebaldarrekin alderatuz gero. "Hasieratik beretik -azpimarratu zuen Eyal Sivanek- estatu israeldarrak holokaustoaren oroitzapena erabili izan du gizarte kohesio eta kontrolerako tresna gisa ezen, alde batetik, barne disidentziak neutralizatzea ahalbidetzen zion eta, bestetik, ekialdeko juduen oroitzapen propioak ezabatzea".

1947ko azaroan, NBEk onartu egin zuen lurralde palestinarra bi zonatan zatitzeko plana, juduei %55 emanez, lehendik %6 baino gehiago ez zeukaten bitartean. Hala eta guztiz ere, hau ez zen nahikoa Israelgo Estatu "etnikoki garbia" (%100 judua) izatea xede zuten nahikunde sionistentzat; eta helburu hau lortzea ezinezkoa izango zen, bere lurraldearen zati batean arabiar palestinarrik zegoen bitartean. Testuinguru honetan, 1948an arabiarren eta israeldarren arteko lehenbiziko gerra izan zen; honen ostean, Israelek zabalago egin zituen bere lurraldeak, eta palestinarrei lurra kentzeko zein hauek kanporatzeko estreinako prozesuak jarri zituen abian. Horrenbestez, "biztanleria transferitzeko" plana abiatu zuen, palestinarrik kanporatzeko justifikazio batez; aitzakia honakoa zen: hainbat herrialde arabiarretatik heltzen ari ziren etorkin juduak hartu behar zituzten lurraldean.



Israeldarren eta palestinarren arteko gatazka fase berri batean sartu zen Sei Eguneko Gerratik aurrera (1967), Israelek Gaza eta Zisjordania, Golan gainak (Siria) eta Sinaiko penintsula (Egipto) indar militarra baliatuta hartu zituenean. 50 eta 60ko urteetan zehar, jatorri arabiarreko judu ugari heldu zen Israela, eta muga inguruetan kokatu zirelarik, erresistentzia palestinarren lehenbiziko biktima israeldarrak izan ziren. Gaur egun, Israelgo biztanleriaren oso portzentaje altua arabiarra da, bai sefardi jatorriko juduak bai 1947ko zatiketaren ondoren edo hurrengo anexioetan inguru israeldarrean geratutako palestinarrik. Izan ere, 1948an arabiar israeldarren kopurua 120.000 ingurukoa bazen, gaur egun milioitik gora doa aise.

Diskurtso sionista nagusia, uneoro, saiatu egin da datu hau ezkututzen, eta horretarako jatorri arabiarreko biztanleria judua desarabiartzeko kanpaina gogor bat garatu du, biztanleriaren zati horren erreferentzia historikoak eta soziokulturalak ikusezin bihurtuz. Esate baterako, badira arabiar israeldarrei herrialdera itzultzea galarazten dieten legeak, palestinar batekin ezkonduz gero, edota Jerusalemek ekialdean bizi diren emakume arabiarrek bere umeak hiritik kanpo izatera behartzen dituztenak. Aldi berean, judu mendebaldarren eta ez-arabiarren Israelerako emigrazioa bultzatzen da, juduak planetako bazter guztietan bilatuz, Argentinan zein Errusian, Etiopia, Peru, Birmania edo Ruandan. Ildo honetatik, Eyal Sivanekek ziurtatu zuen Israel bizi den gerra egoera iraunkor horren eraginez azken urteotan zehar nabarmen murriztu dela bertara iristen diren judu etorkinen kopurua.

Desarabiartze prozesu hau *Route 181, fragments d'un voyage en Palestine-Israël*-en islatzen da; honetan, bere bizilagun arabiar palestinarrengandik bereizten dituzten kultur ezberdintasunak behin eta berriz azaltzen dituzten sefardi jatorriko judu asko ageri dira. Edonola ere, azken urteotan Israelen mugimendu zibil bat garatzen ari da eta, gay eta lesbianen kolektiboen antzera, halako "harrotasun ekialdetar" suerte bat defendatzen du. Ildo honetatik, nortasun arabiar-judua berreskuratzen ahalegintzen ari diren hedabide (telebista-kanal, argitaletxe, kazetaritza argitalpen...) eta gizarte kolektibo batzuk agertu dira.

"Ez dakigu -azaldu zuen Eyal Sivanekek *Arabiar irudikapen garaikideak. Diskurtso kritikoak eta pentsamendu politikoa* mintegian eginiko ekarpenaren azken zatian- Israelgo gudarostea 1967a baino lehen Palestinarenak ziren lurraldeetatik erabat ateratzea gatazkaren amaiera izango ote litzatekeen; edo, beharbada, NBEK 1947an onartu zuen lurralde banaketa berreskuratu beharko litzateke". Kasu bi horietako bakoitzean, dena den, atzera pentsatu beharko litzateke aukeratzen den banaketa demografikorako eredia. Eyal Sivanekek iritziz funtsezko bi bide daude: zeharo bereizirik bi estatu sortzea irizpide etniko eta kulturalen arabera (aukera "etnokratikoa", Israelen barnean biztanleria judu-arabiarren gutxiengo handi bat dagoela ahanzten duena); edo elkarrekin bizi izateko proiektu bat egituratzeko aukera, aldi berean gutxiengo judua mundu arabiarrean integratzea bultzatzea dezakeena ("kultur anitzeko" aukera, nazioarteko komunitatean gehien-gehienek utopikoegi irizten diotena).

"Ez dugu ahantzi behar -egin zuen ohar Eyal Sivanekek- israeldarren eta palestinarren arteko gatazka laborategi moduko bat dela, eta bertan erreproduzitzen dela, eskala txikian bada ere, Mendebaldearen eta Ekialdearen arteko borroka, gizarte aberatsen eta periferikoen artekoa". Gaur egun Israel, itxura demokratikokoa bada ere, nagusiki "etnokrazia" bat da. Hau da, etnia batek -erlijio tradizio espezifikoko batez- lurralde subirano bat menderatzen duen erregimen politikoa. Dagoeneko ahaleginak egiten ari dira eredu hau Ekialde Hurbileko beste inguru batzuetan ezartzen, Iraken esate baterako, honetan egingo den lurralde zein erakunde berrantolaketa xiiak, sunniak eta kurduak bereizten dituzten irizpide etnikoetatik abiatuko baita.

ARGIBIDE GEHIAGO: <http://www.unia.es/artpen/mundo/mundo01/frame02.html>